

**TXITXIBURRUNTZI**  
**ETA**  
**ARATOSTE**

Liburu hau  
Eusko Jaurlaritzako  
Hezkuntza Sailak  
onartu dau.

**TXITXIBURRUNTZI**  
**eta**  
**ARATOSTE**

**BIBIÑE PUJANA**

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Bibiñe Pujana

Marraskilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Deposito Legal: BI-1604-1983

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal


**TXITXIBURRUNTZI**

Aitita eta amama lobatxoakaz sutondoan ezarri dira.

Kanpoan hotz handia egiten dau. Inguru guztiak edurrez zurituta dagoz eta txoriak, erdi hilik, leiho inguruan dabiz.

Aitita ilintiak aurreratzen hasi da; amama, barriz, goruetan.

—Aitita, zuen txiki-denporan txitxiburruntzi egiten joaten zinien? —itauntzen deutso lobatxoak.



—Hobago!! —erantzuten deutso aititak—. Gu bost nebarreba ginan eta “kanporamartxo” egunean amamaren etxera joaten ginan. Amamak lukainkea papel estresakoan batu, eta esaten euskun:

—Ia, orain bostok sololuzeko errekaondora joango zarie! Bertan, sua egiteko, aititak egurrak itxi deutsuez.





Gero anai zaharrenari esaten eutsan:

—Lontzo, zaharrena zaralako, burruntzia egi-  
teko aizto txikia zeuk eroango dozu.

—“Bai amama” esan eta sololuzerantz pozik  
joaten ginan, bidetik abesti hau abestuaz:

Gaur kanporamartxo  
jan dagigun txitxia  
arin egin Lontzo  
guretzat burruntzia.



Errekaondora heltzen ginanean, Anastasi sua egiten hasten zan, eta Lontzo, urretxagaz burrun-tziak egiten. Besteok poztureka olgetan genduan: Harria urrinago zeinek bota, salto handiagoak zeinek egin, eta abar.

Txingerrak egiten ziranean, bakoitzak bere lukainkea burruntzian sartu eta erretzen hasten ginnan.



Gero, suaren ondoan borobilean ezarrita, pozik eta "konprimintu barik" jaten genduan, berba egiteko be asti barik.

—Aitita, eta jan eta gero zertan olgaten zenden?

—Jan eta gero txiotxioka olgaten genduan..., baina urte baten gauza harrigarria jazo jakun:



“Olgetak olgeta” egin eta gero, surteko hautsagaz arpegiak margotzea gogoratu jakun.

Julentxo oraindik txikia zan, bost urte bakarrik eukazan. Anastasik eta bion artean ikatza baino be baltzago ipini genduan, gero geure arpegiak margotzen hasi ginan.





Halako baten, Julentxoren faltea sentidu genduan.


—Julentxo nora joan jaku ba? —esan eban Lontzok.

—Julentxo?... oraintxe puntuan hemen egon da.

—Bai, arpegia geuk margotu deutsagu.

—Gaua heldu baino lehen bilatu beharko dogu, —esan genduan danok.

Berezirantz bizkor joan ginan eta bakoitza bide batetik deika hasi, baina... alperrik: Julentxoren arrastorik ere ez egoan.



Halako baten, Lontzok esan eban:

—Etorri hona. Hemen sator zuloa baino handiago bat dago ta..., hemendik joango zan.

—Ala!, gure Julentxo ez da sator zuloan kabitzen —erantzun eutsan Paulak.

—Baina hau sator zuloa baino handiagoa da, —esan neban nik.

Danok sator zulotik sartu ginan eta..., zer uste dozue ikusi genduala?



Etxe eder bat, loraz betetako baratz baten erdian! Han udabarria zan. Etxe alboan iturritxo bat, eta iturritxo honetan gure Julentxo ura edaten.

—Julentxo! —danok batera deitu geuntsan.

—Etorri hona, —erantzun euskun—. Iturri honetako ura amamak egiten deuskun ur gozoaren modukoa da. (Amamak urari azukarilloak botatzen eutsazan).

Julentxoren ondora arin joan ginan eta, ur horretatik edaten gengozala, etxeko atea zabaltzen hasi zan.



—Baina, —esan eban Lontzok agobitartetik—  
nork zabaldu dau atea?

Inor ez zan ikusten. Astiro-astiro aterantz hu-  
rreratu ginan eta...

—Jesus! Lamiñen etxea ete da? —bildurtuta  
esan eban Paulak.






Aurrerantz edo atzerantz joan ez genkiala,  
ateetan gengozala...

—Ai! zelako bildurra! Gure aurrean neska  
eder bat, baina garritik gora bakarrik, hemetik be-  
hera arraina zan.

—Lanbreabeko lamiñea naz, baina ez bildurtu,  
inori txarrik ez deusat egiten, —esan euskun abots  
politaz.




JESSE-83

Gero barrura sartu eta karrajuko aulkian ezar-  
teko agindu euskun.

Kontuz-kontuz sartu ginan, bildurra oraindino  
aldean geunkan eta.

Bera ere, laster jezarri zan eta, bere bizimo-  
dua azaltzen hasi jakun.



—Ni, Lanbreabeko erreka baztarrean bizi nintzan, baina behin baten artzain gaizto batek neure urrezko orrazia ostu eustan eta... lamiñearen zoritxar handiena orrazia galtzea da. Orduan erabagi hau hartu neban: Uribeke berezi honen azpian etxetxo bat egitea eta hemen nago. Hemen, beti udabarria da eta pozik bizi naz.

Begiak zabal-zabal eginda gengoan, esaten ebana entzuten. Azkenean lamiñea ixildu zanean, esan eutsan Lontzok:



JESSE-83

—Lamiñea, zer deritxazu zugaz olgetan astero etortzen bagara?


—Hori egiten badozue, oso pozik itxiko nozue.

—Beno, orain etxera goaz, etxekoak arduraz egongo dira ta, —esan eban Lontzok.

Zutundu, lamiñeari gaubonak emon, eta “sator zuloa” baino handiagoa zan zulo txotik urten genduan.

Arineketan etxera joan ginan eta, jazotakoa kontatzen hasi ginan; baina ez amamak, ez aititak, ez inork, ezertxo ere ez euskun sinistu.






Handik aurrera astero joaten ginan lamiñea-  
ren etxera. Baina egun baten zulora sartu gina-  
nean, etxe inguru guztiak edurrez beteta ikusi gen-  
duzan.

Etxera heldu ginanean, ateetan txartel bat  
egoan, eta bertan hauxe ipinten eban:

“Lamiñaren garaia  
hemen amaitzen da  
lupetzagaz zarratu  
zulo honen sarrera”.



LAMINAREN GARAIA  
EMEN AMAITZEN DA  
LUPETZAGAZ SARRI-  
TO  
ZULO ONEN ZARRERA

**ARATOSTE**

Mahai gainean plater-sakon bete tostada da-  
go.

Aititak korta-beharrak amaitzen dauazan bi-  
tartean, amama, lobeari "tardantzea" emon ezinik  
dabil.

Halako baten, amaitu dauz eta etorri da.

Umeak euren lekuetara bizkor joan dira.




—Gaur Aratosteak antzineko erara ospatuko doguz, —dino aitak.

—Bai, agitino platerak ere ez dodaz ipini, —erantzuten deutso amamak.

—Eta, nondik jango dogu ba? —dino Anetxok.

—Ba, erdiko plater-sakonetik.






Jaten hasi dira, bata bestea baino "ganosoa-go".

Aititak, tostada bat jan eta sardea mahai gainean itxi dau.

—Aitita, Aratosteak zuen denporan zelan egi-ten zenduezan kontatzen zoaz, ezta?


—Bai, baina lehenengo Aratosteetan abesten genduan bertsoa abestuko deusuet:



—Hara:

Aratostetxon mangea  
jan biheramon bagea  
jan biheramon bajaukek baie  
Gabonak jaukek hobea


Umeak zuhur egon dira, baina bertsoa ez  
dabe ulertu.



—Aitita, baina guk, “hako” “txitxiburruntzi” egunean egiten zenduezan moduko gauzak jakin gura doguz.

—Ai, bai, enel Aratoste batzutan itzela jazo jakun.

Umetxoak begiak borobil-borobil eginda dagoz aititak zer esango ete dauan.



—Ba..., antzina be, oraingo moduan, Aratos-  
teetan kokomarro jazten ginan. Ni, beti eskeko jaz-  
ten nintzan, baina urte haretan edurtea egoan eta,  
ardi jaztea gogoratu jatan. Ardiak artaldean ibiltzen  
dirala ta, auzokoei be bardin jazteko esan neutsen.

Pentsautako guztia egin, eta iluntzean herriko  
plazara joan ginan.





—Zenbat ardiko artaldea, aitita?


—Ba, hogeta bost batekoa.

—Eta artzaina? Nor joian artzain jantzita?

—Ba, inor be ez, artzain joan behar ebana gai-xotu egin zan eta ez zan agertu.

—Orduan, ardi galduen moduan ibiliko zinien, aitita?

—Lehenengotan ez, baina gero bai.




—Herriko guztiok plazaratu ginanagaz batera, albokak eta txistuak soinu alaiak joten hasi ziran. Dantza alaian genbiltzan danok. Ujuju! eta ajaja! Izerrak be, esan eikean dantzan ebilzala.

Baina..., gauerdirantz, plaza ingurura lau otso hurreratu ziran.



—Han datoz, otso jantzita, falta izan diranak,  
—esan eban nire albokoak.

—Jaramonik egin barik dantzan jarraitu genduan, baina, otsoak geroago eta hurrago egozala eta, ardi jantzita gengozanok, artaldean batzen hasiginan.



JESSE 83

—Ondo-ondora heldu artean ez ginan kontu-  
ratu otsoak benetakoak zirala eta gainera gosez  
etozala.

Jende guztia bildurtuta ikusirik, zeozer egin  
behar ebala eta, Zizili pandereterea pandero joten  
hasi zan.






—Bat-batean, otsoak dantzan hasi ziran. Zenbat eta soinu alaiagoak, hainbat eta bizkorrago ebilzan. Esan eikean gosea ere kendu egin jakela. Soinua egoan bitartean arriskurik ez geunkala ikusirik, gu ere dantzan hasi ginan. Eta, horra hor, otso eta ardi korro bakarrean dantzan.



—Argi-kanpaiak entzun artean ibili ginan.  
Guztiz nekatu ziranean, otsoak bertan behera lo  
gelditu ziran.


Orduan, ardiok batu eta hauxe pentsau gen-  
duan: Balotzara bete tostada egin eta otsoak bete-  
bete egin behar genduzala.




JESSE-83

—Petsau eta egin. Itzartu ziraneko hasi ziran tostadaz sabelak beteten. Gero, belarrietaraino bete ziranean, erreka baztarrean ura edan eta barriro basorantz joan ziran.

“Handik-atzine” Aratosteetan, otsoak herri haretara etorten ei ziran.



JESSE-83



## UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abcal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Felix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUAMETS, Juantxu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Felix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Felix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramon Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria

